



ALKIZAKO UDALA

## **UDALBATZARRAK 2024ko IRAILAREN 3AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA**

2024ko irailaren 3an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez  
ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Unai Sorarrain Urruzola  
Ana Agesta Echecolonea  
Nagore Arizeta Garmendia

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

IDAZKARIA:  Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Alkizako Hiri-antolatze Plan Orokorra: Irizpide eta helburuen berri ematea.**
- 2. Alkizako Hiri-antolatze Plan Orokorra: Hasierako dokumentuaren onspena.**
- 3. Tolosaldea garatzen eta alkizako udalaren arteko lankidetzahitzarmenari eransteko I. dokumentu osagarria. hitzarmena alkizako udalerrian tolosaldeko turismo jasangarriaren planeko jarduerak gauzatzeko da. plan hori suspertze transformazio eta erresilientzia planaren esparrukoa da, eta europar batasuneko next generation funtsak dira finantzatzaileak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA: IRIZPIDE ETA HELBURUEN BERRI EMATEA.**

Ikusita, 2024ko urtarrilean, SOROA Arquitectos, SLP-k, Alkizako hiri-antolatze Plan orokorraren talde erredaktoreak, aurkeztu zuela Alkizako hiri-antolatze plan orokorraren irizpide eta helburuen dokumentua.



ALKIZAKO UDALA

Dokumentu honen berri eman da udalbatza honetan.

Gaiz aztertutik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Onartzea Alkizako Hiri-antolatzeke Plan Orokorren irizpide eta helburuak.

**BIGARRENGO PUNTUA**

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA: HASIERAKO DOKUMENTUAREN ONESPENA.**

AURREKARIAK:

1. Ondorengo faseak bete ondoren:
  - Hirigintzari buruzko informazioa.
  - Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren agiria eta aurrerapena egitea.
  - Aurrerapena jendaurrean jartzea.
  - Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egitea.
2. Talde erredaktorea, Soroa Arquitectos S.L.P., 2024ko urtarrilaren 22an, plan orokorraren hasierako onarpenaren dokumentua idazteko oinarri ziren irizpide eta helburuak aurkeztu zituen.
3. 2024ko Maiatzaren 7an, Soroa Arquitectos, SLP (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten ari den taldea), hasierako onespenerako dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa aurkeztu zituen.
3. 2024ko abuztuaren 28an idazkariaren eta Udalari aholku ematen dion arkitektoaren txostenak ematen dira.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeri aplikagarria:

\* Hirigintza-eskumena:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.a) artikulua eskumenak aitortzen dizkie udalderrii: Hirigintza-plangintza, -kudeaketa, -egikaritzea eta -diziplina.eskumen eskusibo gisa jaso da Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31. artikulua, legeetan ezarritakoaren arabera.
- Art. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1-9) artikulua eskumenak aitortzen dizkie udalderrii



ALKIZAKO UDALA

honako gai hauetan: sustapena, kudeaketa, betearazpena eta Hirigintza-diziplina.

\* Ingurugiro gaiekiko prozedura:

— Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua eta lurralde-antolamenduko planak eta Hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikulua.

\* Prozedura: hasierako onespena:

— Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.5. artikulua. Horren arabera, Udalak hasierako onespena emango dio plan orokorrari, eta jendaurrean jarriko du, udalerraren lurralde historikoko aldizkarian eta lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, azken argitalpenetik hilabeteko epean. Era berean, hasierako onespena jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten, sektore-eskumenak dituzten administrazio publikoei.

Hala ere, lurralde-antolamenduko planak eta Hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzeko gutxieneko epea 45 egun balioudunekoa da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, eta udalerrian gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan ere argitaratzen da.

— Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua: udal Plangintzaren Aholkularitza Kontseilua (funtzioak). Kontseiluak udalerriko plangintza orokorra egiteko ardura duten administrazioek egiten edo ezartzen dituzten azterlan, programa, jarraibide eta jardun-ildo guztien berri izango du, plangintza hori egiten laguntzeko, eta, nolana ere, plan orokorraren idazketa teknikoa hasi ondoren emango du informazioa.

— Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarria: Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua garatzen du.

\* Onartzeko eskumena eta quoruma: Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa.

Organoa: Udalbatza Osoa.22.2c artikulua).

Quoruma: Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoa. 47.211) artikulua.

Ondorioz, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo erabakitzen du:



ALKIZAKO UDALA

**LEHENENGOA:** Hasiera batean onestea Alkizako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, eta jendaurrean jartzea, Ingurumen Azterketa Estrategikoarekin batera, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik berrogeita bost (45) egun balioduneko epean, gutxienez, eta udalerrian gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan argitaratzea. Informatzeko soilik, bere egoitza elektronikoan eta egokitzen jotzen dituen gainerako komunikabideetan ere argitaratuko du.

**BIGARRENGOA:** Hasierako onespena jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten, sektore-eskumenak dituzten ondorengo administrazio publikoei:

1. Ur Agentziara, Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 25.4 artikulua betearazteko.
2. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Laugarren Xedapen Iragankorra).
3. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza (martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikulua).
4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bateginaren 94.2. artikuluan xedatutakoa betez (ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemailea).
5. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari ondorengo legean ezartzen duenagatik. 8/2015 Legea, irailaren 29koa (7. artikulua), Trenbide Sektoreari eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekiko buruzkoa.
6. Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministeriora, 11/2022 Lege Orokorra, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa, 50.2. artikulua betearazteko.
7. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan xedatutakoa betez.
8. *Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari.*
9. *Sustapen Ministerioari, abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapenean xedatutakoa betez.*

**HIRUGARRENGOA:** Hasierako onespeneren dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa eraginpeko administrazio publikoei



ALKIZAKO UDALA

eta aldez aurretik kontsulta egin zaien pertsona interesdunei bidaltzea, aurreko paragrafoan ezarritako epe berean egoki iritzitako txostenak eta alegazioak egin ditzaten.

**LAUGARRENGOA:** Hirigintzako onarpen, baimen eta lizentzien ematea etetea, horretarako aurreikusitako zehaztapen berriek indarreko Hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan. Lizentzien etendura lursailak partzelatzeko eta eraikitze edo eraisteko jarduerari dagokie, baina ez eraberritze-obrei, salbu eta horren garrantziagatik eraikina berreraikitzearekin parekatu badaiteke, presazko arrazoiengatik justifikatu gabe, edo eraikitako bolumena handitzea badakar. Etendurak gehenez ere bi urteko epea izango du, erabaki hau hartzen denetik kontaktzen hasita.

#### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

**TOLOSALDEA GARATZEN ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ERANSTeko II. DOKUMENTU OSAGARRIA. HITZARMENA ALKIZAKO UDALERRIAN TOLOSALDEKO TURISMO JASANGARRIAREN PLANEKO JARDUERAK GAUZATZEKO DA. PLAN HORI SUSPERTZE TRANSFORMAZIO ETA ERRESILENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA DA, ETA EUROPAR BATASUNEKO NEXT GENERATION FUNTSAK DIRA FINANTZATZAILEAK**

Ikusita Tolsaldea Garatzen eta Alkizako udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa, Alkizako udalerrian Tolosaldeko turismo jasangarriaren planeko jarduerak gauzatzeko. Plan hori suspertze transformazio eta erresilientzia planaren esparrukoa da, eta europar batasuneko Next Generation Funtsak dira finantzatzaileak.

Ikusita, hitzarmena eta II. Dokumentu osagarria ondorengoa diotela:

**“TOLOSALDEA GARATZEN ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ERANSTeko II.DOKUMENTU OSAGARRIA. HITZARMENA ALKIZAKO UDALERRIAN TOLOSALDEKO TURISMO JASANGARRIAREN PLANEKO JARDUERAK GAUZATZEKO DA. PLAN HORI SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN**



ALKIZAKO UDALA

## **ESPARRUKOA DA ETA EUROPAR BATASUNEKO NEXT GENERATION FUNTSAK DIRA FINANTZATZAILEAK.**

*Tolosan, azken sinadura elektronikoaren egunean.*

### **BILDU DIRA**

*Alde batetik, Angel Martínez de Rituerto Arregui jauna, adinez nagusia (NAN: 72.438.134.W), lehendakaria Tolosaldea Garatzen SA erakundean (helbidea: Lehiberri Zentroa, Apattaerreaka industrialdea, Tolosa), Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua, eta IFK A20500229 duena. Kargu horretarako izendatua Administrazio Kontseiluak 2023ko urriaren 02an egindako bileran. Gaur egun, erakunde horren ordezkari da, eta hitzarmen hau sinatzeko ahalmena du, Administrazio Kontseiluaren 2024ko irailaren 16ko erabakiaren arabera (I. ERANSKINA).*

*Bestetik, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez jauna, Alkizakoko Udaleko alkate-udalburua, erakunde horren ordezkari gisa hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, Ez Ohiko Udalbatzarrak **2024ko irailaren 3an hartutako erabakiaren arabera**, Ane Gomez Urteaga andrea, Alkizako Udaleko idazkari-kontuhartzailea, bertaratuta eta egintzaren fede emanda (II. ERANSKINA).*

*Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, Tolosaldea Garatzen eta Alkizako udalaren arteko hitzarmenaren 2. dokumentu osagarri hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna dutela, eta, horretarako, honako hau*

### **ADIERAZTEN DUTE**

*I. Tolosaldea Garatzen eta Amezketako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Tolosaldeko Turismo Jasangarritasuneko Planaren jarduketak Amezketako udalerrian gauzatzeko, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, Batasunaren funtsek finantzatuta.*

*Europa – Next Generation EU. Tolosaldea Garatzen SAREN Administrazio Kontseiluaren*



ALKIZAKO UDALA

2024ko uztailaren 15eko erabakiaren eta Amezketako alkateak 2024ko uztailaren 10ean emandako 107. ebazpenaren arabera.

II. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, 2022ko abenduaren 14ko Konferentzia Sektorialaren erabakiari jarraiki, 1.980.400 euro eman dizkio Tolosaldea Garatzen erakundeari, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko aurrekontu-programaren kontura (1228 programa, 12281 azpiprograma), Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Plana finantzatzeko. Honako hauek dira plan hau osatzen duten jarduerak:

7. esku-hartzea: Tolosaldea Garatzen. Tolosaldeko HJTP						
Jarduk eta-ardatzak	Jarduketak	1. urtekoa	2. urtekoa	3. urtekoa	GUZTIRA	
1. ardatza	1 Fagus-Alkiza eta Pello Zabala Gunea interpretazio-zentroak hobetzea	0 €	49.375 €	80.000 €	129.375 €	
	2 Higaduraren aurka babesteko neurriak aztertzea eta ezartzea	0 €	0 €	150.000 €	150.000 €	
	3 Biodibertsitatea hobetzeko eta zabaltzeko ibilbideen ondoan hezeguneak sortzea	0 €	0 €	59.375 €	59.375 €	
	<b>1. ARDATZA, guztira</b>	<b>0 €</b>	<b>49.375 €</b>	<b>289.375 €</b>	<b>338.750 €</b>	
2. ardatza	1 Tolosaldea oinez eta bizikletaz	51.375 €	151.000 €	20.000 €	222.375 €	
	2 Turismo-mugikortasuna aztertzea eta irtenbideak ezartzea	50.000 €	290.000 €	60.000 €	400.000 €	
	<b>2. ARDATZA, guztira</b>	<b>101.375 €</b>	<b>441.000 €</b>	<b>80.000 €</b>	<b>622.375 €</b>	
3. ardatza	1 Tolosaldeko turismo-digitalizazio eta -inteligentzia plana	99.375 €	105.200 €	42.200 €	246.775 €	
	<b>3. ARDATZA, guztira</b>	<b>99.375 €</b>	<b>105.200 €</b>	<b>42.200 €</b>	<b>246.775 €</b>	
4. ardatza	1 Eskaintza kultural turistikoa sortzea eta hobetzea	0 €	49.375 €	180.000 €	229.375 €	
	2 Tolosaldea irisgarria	9.375 €	43.000 €	50.000 €	102.375 €	



ALKIZAKO UDALA

3	Turismo aktiboaren eskaintza hobetzea	31.375 €	50.000 €	0 €	81.375 €
4	Turistei bertako produktuen balioa nabarmentzea	79.375 €	60.000 €	40.000 €	179.375 €
5	Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren kudeatzailtza	60.000 €	60.000 €	60.000 €	180.000 €
	<b>4. ARDATZA, guztira</b>	<b>180.125 €</b>	<b>262.375 €</b>	<b>330.000 €</b>	<b>772.500 €</b>
<b>Guztira</b>		<b>380.875 €</b>	<b>857.950, €</b>	<b>741.575, €</b>	<b>1.980.400, 00 €</b>

Dokumentu osagarri honen helburua da Alkizan garatu beharreko Jasangarritasun Turistikoko Planaren 1. ardatzean (1. jarduera) aurreikusitako ekingintza zehaztea da: Fagus-Alkiza Interpretazio Zentroa hobetzea.

Horregatik guztiagatik, alderdiek hitzarmenari erantsi beharreko 2. Dokumentu osagarria sinatzea erabaki dute. Dokumentu hori honako hauek arautuko dute:

### 1. Aurrekariak eta helburua

Fagus-Alkiza Hernio-Gazume kontserbazio bereziko eremuaren interpretazio-zentroa. 2013an jarri zen martxan Alkizako udaletxearen 2. solairuan (<https://www.fagus-alkiza.eus/aurkezpena/>).

Fagus Alkiza Hernio-Gazume KBE sarbidea eta erakusleihoa da. Hiru ardatz nagusiri jarraiki dago antolatuta: natura, gizakia eta kultura.

Alkizako Udalak, 2020an herriko Erretore-etxean garatzen ari den proiektu turistikoaren harian, erabaki zuen Fagus-Alkiza Interpretazio-zentroa udaletxearen eraikinetik Erretore-etxearen ganbarara eramatea, hain zuzen ere, herria lpar polo izenarekin ezagutzen den espaziora.

Erabaki hori hiru arrazoi nagusitan oinarritzen zen.

1. Interpretazio-zentroari espazio zabalagoa ematen zaio eta bere eskaintza museistiko handitzeko bidea ematen da, Hernio-Gazume KBE n balioak eta ezaugarriak osoago azaltzeko manera antolatuz.





ALKIZAKO UDALA

2. Herriaren eskaintza turistikoa izango den Erretore-etxearen egitasmoan integratzen da eta zentroaren kudeaketa eraginkorragoa emateko aukera sortzen da.
3. Udaletxearen eraikinean espazioak libratzen dira udal jarduerak duen azpiegitura egokitzeko parada ematen du.

Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Planaren 10. helburuari erantzuten dio jarduera honek:  
Iraunkortasunaren sustatzaile aktiboa izatea, turismo-helmuga jasangarri gisa posizionatzeko eta Euskadi posizionatzen laguntzeko.

"Tolosaldeko posizionamendura eta helburu publikoetara bideratutako produktu eta esperientzien garapena bultzatzea, helmuga turistikoa erakargarritasuna hobetzeko" eta "Eskualdearen garapen sozio-ekonomikoan eta iraunkorrean laguntzea, kalitatezko enplegua eta digitalizazioa sustatuz, turismoaren balio-katea osatzen duten prozesu guztietan bikaintasuna lortzeko helburuarekin eta bisitariari eskainitako produktu eta zerbitzuen balio erantsia ezagutaraziz.

## **2. Tolosaldeko Turismo Iraunkorreko Planaren esparruan esku hartzea**

Tolosaldeko Turismo Iraunkorreko Planaren 1. ardatzeko (Trantsizio Berdea) lehen ekintza: "Fagus-alkiza eta Pello Zabala Gunea Interpretazio Zentroa hobetzea"

### **Jarduketari esleitutako etiketa klimatikoa: 050**

Deskribapena: Natura eta biodibertsitatea babestea, ondarea eta baliabide naturalak, azpiegitura berdeak eta urdinak.  
Klima-helburuetarako ekarpena: % 40

Fagus-Alkiza (<https://www.fagus-alkiza.eus/aurkezpena/>) Interpretazio Zentroaren webgunean aipatzen den bezala, Fagus-Alkizaren helburu nagusia biodibertsitatea kontserbatzea eta areagotzea da. Horrenbestez, interpretazio-zentroan Hernio-Gazume KBEko biodibertsitateari buruzko informazioa aurkituko dugu, baita duela urte batzuetatik naturgune horretan egin diren eta egiten ari diren kontserbazio-lanak ere.

Lehenengo zutabeaz gain (natura), zentro honen bigarren zutabea gizakia da,



ALKIZAKO UDALA

*eta, beraz, garapen iraunkorra lortzea da zentroaren bigarren helburua. Horrela, biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzen da; izan ere, nekazariari esker, Hernio-Gazume KBEan garrantzi handia duten belardiak, pago motzak... daude. Horregatik, Fagus Alkiza baserriak gaur egun bizi duen egoera ikusita, gogoeta egiteko eta berreskuratzeko aukerak bilatzeko lekua ere bada. Historian zehar Alkizako biztanleek naturarekin duten harremana ezagutarazteko asmoz, zentroan horretarako bildutako ondasun kulturalak ikusi ahal izango ditugu: txondorak, karobiak, e.a.*

*Azken zutabea kulturarena izango litzateke. Jakina da denborak aurrera egin ahala ohiturak, baliabide naturalak ustiatzeko ereduak, gizakiak ingurumenarekin dituen harremanak, kontsumoa... aldatzen direla. Beraz, kultura-aldaketa baten aurrean geundeko, eta, beraz, Fagus Alkizaren hirugarren helburua landa-eremuan kultura sustatzea da, zentzu integral batean.*

### **Fagus-Alkiza Interpretazio Zentroak gaur egun dituen eduki eta espazioak**

#### **1- HERNIO-GAZUME**

*Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) ezagutzera emateko gunea, interpretazio zentroaren muina. Bertako maketan KBEko paisaia ikusi dezakegu, baita eremuan bertan seinalizatuta dauden ibilbideak ere.*

#### **2- HERNIO-GAZUMEKO HEGAZTIAK**

*Harkaizti baten erreplika dugu gune honetan. Bertan kokatuta daude sai-arrearen, sai-zuriaren eta ugatzaren erreplika. Espazio honen helburua da bisitariei azaltzea Hernio-Gazume KBEan zein hegazti espezie dauden eta zer berezitasun dituzten. Bestalde, harkaiztiak eremu honetako babestutako habitatetako bat dela ere azaltzen da bertan.*

#### **3- BASOA-ZUHAITZ LEPATUAK**

*Alkiza edo inguruko herritako baso baten erreplika dugu gune honetan. Argazkietan ikusi ditzakegu hainbat pago-motz. Zuhaitz-enborrak eta hainbat hegaztiren erreplikak ere aurkituko ditugu basoan zehar (okil-beltza, okil-berdea, zozoa eta abar). Espazio honen helburua da bisitariei azaltzea paisaia gizakiok moldatu izan dugula. Gure arbasoen jardunagatik aurkituko ditugu Hernio-Gazumen pago mugarratuak. Espazio honetan azaltzen dugu pago-motzak zer diren, zergatik erabiltzen zuten teknikari hori eta bide batez, garai bateko baserrietako bizitza zer nolakoa zen.*



ALKIZAKO UDALA

#### 4- HERNIO-GAZUMEKO INTSEKTUAK

*Basoaren parean, horman eskegita ikusgai daude intsektu deskonposatzaileek erreplikak: Rosali aalpina, Lucanus cervus eta Cerambyx cerdo.*

*Atal honetan Hernio-Gazumeko intsektu deskonposatzaileak zeintzuk diren eta ekosistemarako zer garrantzia duten azaltzen dugu.*

#### 5- HERNIO-GAZUMEKO SAGUZARRAK

*Gaur egun, kobazulo baten erreplika baliatzen dugu saguzarrei buruzko informazioa emateko. Espazio honen xedea da azaltzea KBE honetako babestutako espezieetako bat direla saguzarrak. Animalia bitxi hauen berezitasunak eta ekosistemarako duten garrantzia zenbatekoa den azaltzen diegu bisitariei.*

#### 6- KULTURARI ESKAINITAKO ESPAZIOA

*Zentroan ikusgai daude txondor baten eta karobi baten maketa txikiak ere.*

#### **Esku-hartzearen deskribapena**

*Eraberritzea egungo espazio museistikoaren elementuetatik abiatuko da. Gaur egun udaletxean dauden elementu horiek, Erretore-etxera eramango dira, dauden daudenean edo moldatuta, bertako espazioaren ezaugarrietara egokituz.*

*Horretaz gain hiru elementu berri nahi ditugu bertan kokatu:*

1. **Urmaela.** Udalak Hernio-Gazume KBE egiten diharduen interbentzioen artean, anfibiak eta intsektuak ugaltzeko bi urmael egin ditu. Espazio berri honetan urmaelak zer diren eta bertako ekosistema zer den azaldu nahiko genuke.
2. **Gizakiaren espazioa.** Gune honetan giza jarduerak (basogintzak, ikazkintzak, nekazaritzak, abeltzantzak,...) Hernio-Gazumeren paisaian eta izaeran izan duen eraginaz hitz egin nahiko genuke. Helburua litzateke bisitariek ulertzea herritarren bizimoduarekin batera aldatu dela paisaia bera ere. Hor kokatuko lirateke, besteak beste, karobiak, txondar-plazak, galtzadak, paretak eta beste elementu antropologikoekin batera.
3. **Sormenaren kabiaren espazioa.** Fagus-Alkiza proiektuaren baitan kulturaren ardatzean Sormenaren Kabia izeneko bekak antolatzen dira. Beken helburua sormena artistikoa eta natura lotzea Alkizan egonaldia egitera artistak bekatuz. Egonaldi horiek eta bertan sortzen denaren erakusleiho bat paratu nahiko genuke.



ALKIZAKO UDALA

*Aintzat harturik Alkizako Udalak ez duela giza baliabiderik zentroa etengabe irekita izateko, zentroaren **bisitarien kudeaketa** egokia egiteko planteamendua ere egitea ezinbesteko da, bai sarbidearen ikuspegitik baita segurtasunarenetik ere.*

### **Gauzatzeko epea**

*6 hilabete, kontratua sinatzen denetik aurrera.*

#### **3. Aurrekontua**

*80.000 €, BEZa barne.*

**2ª ADENDA A ANEXAR AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE TOLOSALDEA GARATZEN Y EL AYUNTAMIENTO DE ALKIZA PARA LA EJECUCIÓN DE LAS ACTUACIONES DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO DE TOLOSALDEA, ENMARCADO EN EL PLAN DE RECUPERACION, TRANSFORMACION Y RESILIENCIA, FINANCIADOS POR FONDOS DE LA UNION EUROPEA – NEXT GENERATION EU, EN EL MUNICIPIO DE ALKIZA**

---

*En Tolosa, a fecha de la última firma electrónica.*

### **REUNIDOS**

*De una parte, D. Angel Martínez de Rituerto Arregui, mayor de edad, con DNI nº 72.438.134.W, presidente de la entidad Tolosaldea Garatzen S.A., con domicilio en Tolosa, Lehiberri Zentroa, Apattaerreka Industriagunea, inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa y CIF A20500229, cargo para el que fue nombrado en el Consejo de Administración celebrado el 02 de octubre de 2023. Ostenta, en la*



ALKIZAKO UDALA

*actualidad, la representación de dicha entidad, y está facultado para suscribir el presente Convenio, en virtud de Acuerdo del Consejo de Administración de fecha 16 de septiembre de 2024 (ANEXO I).*

*De otra, D. Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, alcalde del Ayuntamiento de Alkiza, en representación de dicha entidad, facultado para suscribir el presente Convenio, en virtud de Acuerdo adoptado por el Pleno Extraordinario del Ayuntamiento de Alkiza en fecha 3 de septiembre de 2024, asistido/a de Dña Ane Gomez Urteaga, secretaria-interventora del Ayuntamiento de Alkiza, que da fe del acto (ANEXO II).*

*Las partes se reconocen mutuamente, en la calidad en que cada una interviene, la capacidad legal necesaria para suscribir esta 2ª Adenda al Convenio suscrito entre Tolosaldea Garatzen y el Ayuntamiento de Alkiza y al efecto,*

## **EXPONEN**

- I.** *Que Tolosaldea Garatzen y el Ayuntamiento de Alkiza suscribieron un Convenio de colaboración para la ejecución de las actuaciones del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino de Tolosaldea, enmarcado en el plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiados por fondos de la Unión Europea – Next Generation EU, en el municipio de Alkiza en virtud de Acuerdo del Consejo de Administración de Tolosaldea Garatzen S.A. de fecha 15 de julio de 2024 y acuerdo adoptado por el Pleno Ordinario del Ayuntamiento de Alkiza en fecha 9 de julio de 2024.*
- II.** *Que el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco, en virtud del acuerdo de la Conferencia Sectorial de 14 de diciembre de 2022, ha aportado a Tolosaldea Garatzen, la cantidad de 1.980.400 € euros con cargo al programa presupuestario denominado Mecanismo de Recuperación, Transformación y Resiliencia (programa 1228, subprograma*



ALKIZAKO UDALA

12281) para financiar Plan de Sostenibilidad Turística de Tolosaldea. Las actuaciones que componen este plan son las siguientes:

<b>Intervención 7: Tolosaldea Garatzen. PSTD de Tolosaldea</b>						
<b>Ejes de actuación</b>	<b>Actuaciones</b>	<b>Anualidad 1</b>	<b>Anualidad 2</b>	<b>Anualidad 3</b>	<b>TOTAL</b>	
<b>Eje 1</b>	1	Mejora de los Centro de Interpretación Fagus-Alkiza y Pello Zabala Gunea	0 €	49.375 €	80.000 €	129.375 €
	2	Análisis e implantación de medidas para la protección contra la erosión	0 €	0 €	150.000 €	150.000 €
	3	Creación de humedales junto a recorridos para mejorar la biodiversidad y divulgarla	0 €	0 €	59.375 €	59.375 €
		<b>Total EJE 1</b>	<b>0 €</b>	<b>49.375 €</b>	<b>289.375 €</b>	<b>338.750 €</b>
<b>Eje 2</b>	1	Tolosaldea Caminando y en bici	51.375 €	151.000 €	20.000 €	222.375 €
	2	Análisis de la movilidad turística e implantación de soluciones	50.000 €	290.000 €	60.000 €	400.000 €
		<b>Total EJE 2</b>	<b>101.375 €</b>	<b>441.000 €</b>	<b>80.000 €</b>	<b>622.375 €</b>
<b>Eje 3</b>	1	Plan de digitalización e inteligencia turística de Tolosaldea	99.375 €	105.200 €	42.200 €	246.775 €
		<b>Total EJE 3</b>	<b>99.375 €</b>	<b>105.200 €</b>	<b>42.200 €</b>	<b>246.775 €</b>
<b>Eje 4</b>	1	Creación y mejora de la oferta turística cultural	0 €	49.375 €	180.000 €	229.375 €
	2	Tolosaldea accesible	9.375 €	43.000 €	50.000 €	102.375 €
	3	Mejora de la oferta de turismo activo	31.375 €	50.000 €	0 €	81.375 €
	4	Puesta en valor de productos locales para el turista	79.375 €	60.000 €	40.000 €	179.375 €
	5	Gerencia del plan de sostenibilidad turística en destino	60.000 €	60.000 €	60.000 €	180.000 €
		<b>Total EJE 4</b>	<b>180.125 €</b>	<b>262.375 €</b>	<b>330.000 €</b>	<b>772.500 €</b>
<b>Total</b>		<b>380.875 €</b>	<b>857.950, €</b>	<b>741.575, €</b>	<b>1.980.400, 00 €</b>	



ALKIZAKO UDALA

*La presente adenda tiene por finalidad definir la ejecución prevista en el Eje 1, Actuación 1 del Plan de Sostenibilidad Turística a desarrollar en Alkiza: Mejora del Centro de Interpretación Fagus-Alkiza.*

*Por todo lo anterior, las partes acuerdan suscribir la 2ª adenda a anexar al convenio suscrito entre Tolosaldea Garatzen y el Ayuntamiento de Alkiza, que se regirá por las siguientes:*

### **1. Antecedentes y objetivo**

*Centro de interpretación de la ZEC Fagus-Alkiza Hernio-Gazume. Se puso en marcha en 2013 en la 2ª planta del Ayuntamiento de Alkiza (<https://www.fagus-alkiza.eus/presentación/>).*

*La ZEC Fagus Alkiza Hernio-Gazume es acceso y escaparate. Se organiza en torno a tres ejes principales: naturaleza, ser humano y cultura.*

*El Ayuntamiento de Alkiza, en el marco del proyecto turístico que se está desarrollando en 2020 en la Casa Rectoral de la localidad, decidió trasladar el Centro de Interpretación Fagus-Alkiza desde el edificio de la Casa Consistorial hasta el desván de la Casa Rectoral, espacio conocido como Polo Norte.*

*Esta decisión se basaba en tres razones principales.*

- 1. Se dota al centro de interpretación de un espacio más amplio y permite ampliar su oferta museística, organizando de forma más completa la exposición de valores y características en la ZEC Hernio-Gazume.*
- 2. Se integra en el proyecto de la futura Casa Rectoral como oferta turística del municipio y se crea la posibilidad de dotar de una gestión más eficiente del centro.*
- 3. En el edificio de la Casa Consistorial se liberan espacios para adecuar la infraestructura de la actividad municipal.*

*Esta actuación responde al objetivo nº10 del Plan de Sostenibilidad turística de Tolosaldea:*

*Ser un activo promotor de la sostenibilidad para posicionarse como destino turístico sostenible y contribuir al posicionamiento de Euskadi.*

*También se relaciona con el objetivo "Impulsar el desarrollo de productos y experiencias orientadas al posicionamiento y públicos objetivos de Tolosaldea para mejorar el atractivo del destino turístico" y el siguiente objetivo "Contribuir al desarrollo socio-económico y sostenible de la comarca, fomentando el empleo*



ALKIZAKO UDALA

de calidad y la digitalización con el objetivo de la excelencia en todos los procesos que conforman la cadena de valor del turismo y dando a conocer al visitante el valor añadido de los productos y servicios ofrecidos.

## **2. Intervención en el marco del Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea**

*Eje 1 (Transición Verde) del Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea. Primera acción del eje, proyecto definido en la solicitud "Mejora de los Centro de Interpretación Fagus-alkiza y Pello Zabala Gunea"*

**Etiqueta climática a la que se asigna la actuación: 050**

**Descripción: Protección de la naturaleza y la biodiversidad, patrimonio y recursos naturales, infraestructuras verdes y azules.**

**Contribución a los objetivos climáticos: 40%**

Tal y como se menciona en la página web del Centro de Interpretación Fagus-Alkiza (Presentación – FAGUS Alkiza (faqus-alkiza.eus)) el objetivo principal de Fagus-Alkiza es conservar y acrecentar la biodiversidad. De modo que en el centro de interpretación hallaremos información sobre la biodiversidad de Hernio-Gazume ZEC, además de los trabajos de conservación que se hicieron años atrás y que se están haciendo actualmente en dicho espacio natural.

Además del primer pilar: la naturaleza, el segundo pilar de este centro es el ser humano, por lo que el segundo objetivo del centro es conseguir un desarrollo sostenible. De esta manera, se garantiza la conservación de la biodiversidad; de hecho, gracias al campesino existen los prados, las hayas trasmochas... que tanta importancia tienen en el ZEC Hernio-Gazume. Por ello, ante la situación que sufre hoy en día el caserío, Fagus Alkiza, es también un lugar para reflexionar y buscar opciones de recuperación.

Con el propósito de dar a conocer a lo largo de la historia la relación de los habitantes de Alkiza con la naturaleza, en el centro podremos ver los bienes culturales recopilados para dicho motivo: las carboneras (txondorrak), las caleras (karobiak)...

El último pilar sería el de **la cultura**. Bien se sabe que con el paso del tiempo van cambiando las costumbres, los modelos de explotación de los recursos naturales, las relaciones del hombre con el medio ambiente, el consumo... De modo que estaríamos ante un cambio cultural, por lo que el tercer objetivo de Fagus Alkiza es fomentar la cultura en el ámbito rural en un sentido integral.





ALKIZAKO UDALA

## **Contenidos y espacios actuales del Centro de Interpretación Fagus-Alkiza**

### **1- HERNIO-GAZUME**

*Centro de Interpretación de la Zona de Especial Conservación (ZEC) Hernio-Gazume. En su maqueta podemos observar el paisaje de la ZEC y los recorridos señalizados en el propio ámbito.*

### **2- AVES DE HERNIO-GAZUME**

*En esta zona tenemos la réplica de un roquedo. En ella se sitúa la réplica de un buitres, el alimoche y el quebrantahuesos. El objetivo de este espacio es explicar a los visitantes las especies de aves presentes y sus peculiaridades en la ZEC Hernio-Gazume. Por otro lado, también se explica que el roquedo es uno de los hábitats protegidos de esta zona.*

### **3- BOSQUE-ÁRBOLES TRASMOCHOS**

*En esta zona tenemos la réplica de un bosque de Alkiza o pueblos cercanos. En las fotos podemos ver algunas hayas trasmochas. También encontraremos troncos de árboles y réplicas de diferentes aves a través del bosque (pájaro carpintero, mirlo, etc.). El objetivo de este espacio es explicar a los visitantes que el paisaje ha sido moldeado por los seres humanos. Por la actividad de nuestros antepasados encontraremos en Hernio-Gazume hayas trasmochas. En este espacio explicamos qué son las hayas trasmochas, por qué utilizaban esta técnica y, de paso, cómo era la vida en los caseríos de antaño.*

### **4- INSECTOS DE HERNIO-GAZUME**

*A la altura del bosque, las réplicas están expuestas colgadas en la pared por insectos descomponedores: Rosali aalpina, Lucanus cervus y Cerambyx cerdo.*

*En este apartado explicamos cuáles son los insectos descomponedores de Hernio-Gazume y su importancia para el ecosistema.*



ALKIZAKO UDALA

## 5- MURCIÉLAGOS DE HERNIO-GAZUME

*Aprovechamos la réplica de una cueva para informar sobre los murciélagos. El objetivo de este espacio es explicar que los murciélagos son una de las especies protegidas de la ZEC. Explicamos a los visitantes las peculiaridades de estos curiosos animales y su importancia para el ecosistema.*

## 6- ESPACIO DEDICADO A LA CULTURA

*En el centro también se exponen pequeñas maquetas de una carbonera y una calera.*

### **Descripción de la intervención**

*La reforma partirá de los elementos del actual espacio museístico. Estos elementos que actualmente se encuentran en la Casa Consistorial, se trasladarán a la Casa Rectoral, adaptándolos a las características del espacio.*

*Además, queremos ubicar en él tres nuevos elementos:*

**1. Estanque.** *Entre las intervenciones que el Ayuntamiento está llevando a cabo en la ZEC Hernio-Gazume, se han realizado dos estanques para la reproducción de anfibios e insectos. En este nuevo espacio nos gustaría explicar qué son las lagunas y qué es su ecosistema.*

**2. El espacio del ser humano.** *En este espacio nos gustaría hablar de la actividad humana (silvicultura, carbonería, agricultura, ganadería, ...) y su influencia en el paisaje y en el carácter de Hernio-Gazume. El objetivo sería que los visitantes entendieran que con el modo de vida de los ciudadanos ha cambiado también el paisaje. Ahí se situarían, entre otros, caleros, plazas de chondra, calzadas, paredes y otros elementos antropológicos.*

**3. El espacio del nido de la creatividad.** *Dentro del proyecto Fagus-Alkiza en el eje cultural se organizan las becas denominadas Sormenaren Kabia. El objetivo de las becas es vincular la creatividad artística y la naturaleza becando a los artistas con una estancia en Alkiza. Queremos dedicar un espacio a esas estancias y un escaparate de lo que se genera en ellas.*



ALKIZAKO UDALA

*Teniendo en cuenta que el Ayuntamiento de Alkiza **carece de recursos humanos** para mantener permanentemente abierto el centro, es necesario realizar también un planteamiento para una correcta **gestión de los visitantes del centro**, tanto desde el punto de vista del acceso como de la seguridad.*

### **Plazo de ejecución**

*6 meses desde la firma del contrato*

### **3. Presupuesto**

*80.000 € IVA incluido.*

**AYUNTAMIENTO DE ALKIZA**

**TOLOSALDEA GARATZEN**

**Fdo.: Iñaki Irazabalbeitia Fernandez**

**Fdo.: Angel Martínez de Rituerto  
Arregui"**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENGOA.-** Tolosaldea Garatzen eta Alkizako udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena eta II. Dokumentu osagarria onestea, Alkizako udalerrian Tolosaldeko Turismo jasagarriaren planeko jarduerak gauzatzeko. Plan hori, suspertze, transformazio eta erresilientzia planaren esparrukoa da, eta Europar batasuneko Next Generation funtsak dira finantzatzaileak.

**BIGARRENA.-** Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

**HIRUGARRENA:** Akordio honen berri Tolosaldea Garatzen-i ematea.



ALKIZAKO UDALA

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:15etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste dutenala.*



*[Faint signature]*